# [Eusk/Cast] Ante las pintadas fascistas aparecidas en Barakaldo

BARAKALDOKO AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA. :: 10/10/2017

El Movimiento Pro Amnistia de Barakaldo ha hecho un llamamiento a hacer frente al fascismo

**[Euskara] Barakaldon agertu diren pintada faxisten aurrean**

**Barakaldoko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak faxismoari aurre egiteko deia egin duLa, 2017/10/07 - 19:22 argitaratua**

AZKEN EGUN HAUETAN BARAKALDON ZEHAR AGERTU DIREN PINTADA NAZIONAL - FAXISTEN AURREAN, BARAKALDOKO AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUAK ZERA ADIERAZI NAHI DU:

Ez dakigu eraso hauen egileak Lasesarreko makro-kuartelean gorderik dauden Bartzelonako Piolin komandoko kideak izan diren ala Kataluniako herriak legitimoki independentziarantz hartu duen bideak ezinean utzi dituen selekzio espainoleko pare bat jarraitzaile sutsu. Ziur dakiguna da, bai batzuek eta bai besteek, eta Sozialdemokraziatik eta eskumako “euskal” eta alderdi espainoletarainoko abaniko zabal horretan sartzen diren guztiek, erregimen kapitalista espainolaren sostengatze funtzioa egiten dutela.

Oligarkia espainolak inposatutako erregimen bat, eliza nazional- katolizistaren babes eta alienatze lanarekin, 36ko estatu kolpe militar faxistaren bidez, non 78an, dena ondo lotuta uzteko  mendebaldeko demokrazia burges itxura hartu zuen, frankismoko injustizia guztiak legalizatuz eta mantenduz. Hori da defenditzen duten demokrazia. Bere zimenduak langileriaren esplotazioaren gain eta Espainiako erreinuak zapalduta dauzkan nazioen autodeterminazioaren ukazioan dauzkan demokrazia. Azkeneko hamarkadak ENAM-eko militanteak jarraitzera, torturatzera, bortxatzera, kartzelaratzera, dispertsatzera eta hiltzera dedikatu den demokrazia, Espainiaren batasun sakrosantoaren eta klase herrikoiak itotzen dituen kapitalismoaren kontra egiten duen proiektu bat aurrera eraman nahi izateagatik. Demokrazia hau da alderdi politikoak ilegalizatu, egunkariak eta irratiak itxi eta estatu europarrekin alderatuta EAE-n bikoizten edo hirukoizten den polizia ratioa, zipaio eta kanpotarra barne, mantentzen duena. Bai, Katalunia okupatzera eta erreprimitzera doazen Guardia Zibila eta Polizia Nazionala “A por ellos, oe!” oihuekin agurtzen duen demokrazia bera. Egunean zehar uniforme, porra eta gomazko balekin, eta gauez kaleko arropaz eta porra hedagarriekin erasotzen duena.

Aurkeztu diren datu objektiboen ondoren, ez diogu inongo zilegitasunik ematen espainiar legediari, eta legitimo zaigu Kataluniako referendum antikonstituzionala eta ondorengo independentzia deklarazioa. Haien borroka gurea da. Euskal Herriko ehunka euskal seme-alaba kartzelara, deserrira edota heriotzara eraman dituen borroka, haiena ere bada. Ezin

ditugu ahaztu estatuaren eskuetan, sarraski zentroetan jarraitzen dutenak, eta etorriko direnak, gehienbat Kataluniari begira bagaude. Gaur egun Amnistiaren aldarrikapena inoiz baino presenteago izan behar dugu, hau bai dugu preso politiko guztien askapenerako tresna eta baita kartzelak berriz ez betetzeko bermea, herri bezala gureak diren eskubide nazional eta sozialak geureganatzean lortuko duguna.

Amaitzeko, Barakaldoko herriari begiak ondo irekita mantentzeko eskatzen diogu datozen egun hauetan, urriaren 12a (Inperialismo espainolaren eguna) gertu dugunez, faxista hauek berriro ekintzaren bat egin dezaketelako. Perikoren memoriari, euskal preso politikoen borrokari eta gure herriaren autodeterminazioari egindako eraso hauek ezin dira zigorgabe geratu. Ezin gara besoak gurutzaturik geratu instituzioek zerbait egingo duten zain. Hauek baitira antolatzen eta ekiten uzten dietenak. Faxismoaren kontra kalean borrokatzen da. Pasa gaitezen hitzetatik ekintzetara.

AMNISTIAREN BIDEAN FAXISMORIK EZ! ALDE HEMENDIK!

---

[Castellano]

**Ante las pintadas fascistas aparecidas en Barakaldo**

**El Movimiento Pro Amnistia de Barakaldo ha hecho un llamamiento a hacer frente al fascismo**

ANTE LAS PINTADAS NACIONAL-FASCISTAS ESPAÑOLAS APARECIDAS POR BARAKALDO EN LOS ÚLTIMOS DÍAS, EL MOVIMIENTO PRO AMNISTÍA Y CONTRA LA REPRESIÓN DE BARAKALDO QUIERE EXPRESAR LO SIGUIENTE:

No sabemos si los autores de estos ataques son compañeros del comando Piolín de Barcelona destinados en el macro-cuartel de Lasesarre o si, por el contrario, son un par de chavales fervientes seguidores de la selección española, radicalizados por la impotencia que les causa la legítima determinación que ha tomado el pueblo catalán hacia la independencia. De lo que estamos seguros es que tanto unos como otros, así como el amplio abanico de partidos políticos desde la socialdemocracia a la derecha "vasca" y española, cumplen su función de sostén del régimen capitalista español.

Un régimen impuesto por la oligarquía española, con el apoyo y labor alienante de la iglesia nacional-católica, a través del golpe de estado militar fascista del 36 y que, en el 78, se disfrazó de democracia burguesa occidental legalizando y manteniendo en la impunidad todas las injusticias franquistas para dejarlo todo atado y bien atado. Esa es la democracia que defienden. Aquella que se cimienta sobre la explotación de la clase trabajadora y la negación del derecho a la autodeterminación de las naciones oprimidas por el reino de España. Una democracia que durante las últimas décadas se ha dedicado a perseguir, torturar, violar, encarcelar, dispersar y asesinar a cientos de militantes del MLNV por defender un proyecto político en la dirección contraria a la sacrosanta unidad de España y al capitalismo que ahoga a las clases populares. La misma democracia que ilegaliza partidos

políticos, cierra periódicos y radios y mantiene un ratio policial, cipaya y extranjera, por habitante en la CAV que duplica o triplica el de los estados europeos. Sí, esa misma democracia que despide entre gritos de "A por ellos, oe!" a la Guardia Civil y Policía Nacional que va a ocupar y reprimir al pueblo catalán con uniforme, porras y balas de goma de día; y de paisano, con porras extensibles de noche.

Tras los datos objetivos expuestos, le negamos cualquier legitimidad a la legalidad española y sus palmeros, mientras llamamos a legitimar el anticonstitucional referéndum catalán y futura declaración de independencia. Su lucha es la nuestra. La lucha que ha llevado a cientos de hijos e hijas de Euskal Herria a la cárcel, el exilio o la muerte, también es la suya. No podemos olvidarnos de las que siguen en los centros de exterminio del estado y de las que vendrán, sobre todo si miramos a Catalunya. Hoy en día la reivindicación de la Amnistía debe estar más presente que nunca, siendo ésta la única herramienta que asegura la liberación de todos los presos políticos y que las cárceles no vuelvan a llenarse, al conquistar los derechos nacionales y sociales que como pueblo nos corresponden.

Para finalizar, emplazamos al pueblo de Barakaldo a mantener los ojos abiertos en los próximos días, ya que debido a la cercanía del 12 de octubre (Día del Imperialismo español), estos fascistas podrían volver a actuar. Estos ataques nacional-fascistas españoles a la memoria de Periko, a la lucha de las presas políticas vascas y al derecho de autodeterminación de Euskal Herria no pueden quedar impunes. No podemos quedarnos de brazos cruzados esperando a que las mismas instituciones que les permiten organizarse y actuar impunemente saquen una nota de condena estéril. Al fascismo se le combate en las calles. Pasemos de las palabras a los hechos.

AMNISTIAREN BIDEAN FAXISMORIK EZ! ALDE HEMENDIK!

---

*https://eh.lahaine.org/eusk-cast-ante-las-pintadas*